

Olentzero Oiartzunen



Joxe Mari **Mitxelena** **Cazabon***

Nire ustez, bereizi egin beharko genuke, Olentzero eta Onentzaro. Onentzaro garai bat da, aro bat. Olentzero pertsonaje bat da, ero bat. Onentzaro aspaldidanik ospatzen da Euskal Herri guztian, Kristoren garaia bainan askoz lehenago. Olentzero ospatzen da, pertsonaje bezala, Oiartzunen eta Lesakan. Kristautasuna hasi zenetik gaur arte. Lesakan eta Oiartzunen hasi zen, erromatarrek Aiako Arriko Arditurriko meategiak explotatzen ari zirelako. Erromatarrek hasi ziren kristautasuna guregana ekartzen, eta lehenengo berriak eukaldunen artean, ikazkin bat hasi zen, eta erotzat hartu zuten.

Giltza-Hitzak: Olentzero. Onentzaro. Oiartzun. Lesaka. Erromatarrek. Kristautasuna. Aiako Arria. Eroa. Aroa.

En mi opinión, deberíamos distinguir entre Olentzero y Onentzaro. Onentzaro es un tiempo, un período. Olentzero es un personaje, un loco. Onentzaro es celebrado desde antiguo en toda Euskal Herria, desde bastante antes de Cristo. El Olentzero es celebrado como personaje, tanto en Oiartzun como en Lesaka. Desde los albores del cristianismo hasta hoy en día. El cristianismo comenzó en Lesaka y Oiartzun debido a la explotación por parte de los romanos de las minas de Arditurri en Peñas de Aya. Los romanos fueron los primeros en traernos el cristianismo; fue un carbonero el que empezó a difundir las noticias, y lo tomaron por loco.

Palabras Clave: Olentzero. Onentzaro. Oiartzun. Lesaka. Romanos. Cristianismo. Peñas de Aya. Loco. Período.

A mon avis, nous devrions faire la différence entre Olentzero et Onentzaro. Onentzaro est un temps, une période. Olentzero est un personnage, un fou. Onentzaro est célébré depuis des temps immémoriaux dans tout Euskal Herria, depuis bien avant Jésus Christ. Olentzero est célébré comme personnage, aussi bien à Oiartzun qu'à Lesaka, depuis l'aube du christianisme jusqu'à nos jours. Le christianisme a commencé à Lesaka et à Oiartzun à cause de l'exploitation des mines des Peñas de Aya et Arditurri par les Romains. Les Romains ont été les premiers à nous apporter le christianisme; ce fut un charbonnier qui commença à diffuser les nouvelles et ils le prirent pour un fou.

Mots Clés: Olentzero. Onentzaro. Oiartzun. Lesaka. Romains. Christianisme. Peñas de Aya. Fou. Période.

* Mendin Berri, 5.20180 Oiartzun.

ZER DA OLENTZERO?

1. IZENA

Irakurri eta egun hauetan entzun dugu, euskaldunak, gure arbasoak, bere bizimoduan bi garai edo une zirela garrantzitsuenak: udako solstizioa eta neguko solstizioa.

Garai bakoitzaren hasieraren eta bukaeraren inguruan, ospakizunak izaten zituzten, eta beti protagonismoa suak izaten zuen. Udan sua kanpoan egiten zen eta neguan etxe barruan.

Neguko solstizioari deitzen zioten eta deitzen diogu: eguberri (eguzki berri). Eta jakina, honen inguruan ospakizunak eta festak egiten zituzten. Aita Manuel Lekuona, oiartzuarrak, idatzi zuen, oles egiten ospatzen zutela.

Zer da oles egitea?. Kantuz, irrintzika eta oihuka ibiltzea eta agurtzea. Orduan egun horiei (bi, lau, zazpi,...) deitzen zioten oles aroa.

Hau izan zen kristautasuna gure artera iritsi baino lehen. Adituek esaten dutenez, olentzaro ez zen pertsonai bat, baizik eta garai bat (oles aroa).

Beste lekuetan esaten da onentzaroa (onen aroa).

2. NOIZTIK OSPATZEN DA?

Lehen esan dudan bezala, olesaroa, olentzaroa edo onentzaroa, kristautasuna iritsi baino lehenagotik ospatzen zen.

Bainan pertsonaia bezala, kristautasunaren ondorioa da, eta Mikel Aranburuk orain dela hamabost egun esan zuen bezala, eta ikerketa ugari eta sakon egin ondoren, esan zuen Oiartzun eta Lesakara mugatuta zegoela pertsonaia bezala. Pertsonaia bezala egiten ziren ospakizunak bi herri haue-tan bakarrik zeudela sustraiak.

Eta pertsonaia hori zer izan zen, fiktizioa, sortua, asmatua edo benetan egiazko pertsona izan zen?

Izan daiteke sortua edo asmatua izatea. Orduan suarekin zer ikusirik daukan ofizio batekin topatzen gara: ikazkinarekin. Baina izan daiteke baita ere benetakoa izatea, benetan pertsona hori bizi izatea.

Lesakan eta Oiartzunen ez dugu olentzaroa esaten, olentzeroa baizik. Bukaera, eroa, zer da?

Oiartzunen gaur nahiko galduta dago, baina pertsona bat burutik ondo ez dagoena edo babua dena, olentzero deitzen diogu.

Kantuetan esaten den bezala, ikazkina Jesus jaio zela oleska berri ematen du. Eta garai hartan normala da bertakoak erotzat hartzea ikazkin hori. Eta hortik etorri daiteke oles-eroa, olentzeroa.

Olentzerori buruz batez ere XX mendean idatzi da, baina Lope de Isastik XVII garren mendean eta Larramendik XVIIIan idatzi zuten, eta XV garren mendean (14...) aipamen bat egiten da Marot poeta frantzesaren bitartez: "Père Noël qui chantastes la vigne qui moit rejouit l'Olentzaro".

3. NON OSPATZEN DA?

Esan dut, pertsonaiari buruzko sustraiak Oiartzunen eta Lesakan daudela. Eta zergatik hori?

Zer dago Oiartzun eta Lesakaren artean? Aiako Harria.

Eta zer edo nortzuk zeuden orain dela bi mila urte, kristautasuna hasi zenean, leku horretan? Erromatarrak.

Erroma laugarren mendean kristautu zen, eta pentsatzekoa da, garai horretako Aiako Harrian zeuden erromatarrak kristau izaten egiten hastea.

Erromatarrak Aiako Harrian zeuden, bertako zilarrezko meategiak edo minak explotatzen. Erromatarrak ia mila urte egon ziren bertan, eta erromatarren eta inguruko jendeen artean, garai edo aro desberdinak igaro zituzten.

Batzuetan oso txarrak, eta euskaldunak preso hartu eta esklabu bezala ibiltzen zituzten meategietan, edo frentera eramanez, gerretan lehenengo filetan erabiltzeko.

Bestetan berriz, hartu-emanak ez ziren hain txarrak, eta euskaldunak merzenario gisa joaten ziren gerretara, bazituzten errelazio komertzialak ere eta lana, sari baten truke ere egiten zuten.

Errelazio on horretan, eta erromatarrek kristaututzen ari zirela, ez da harritzekoa inguruan zeudenak, edo bertan lana egiten ari zirenak, gauza hauen berri entzutea eta gero herrian eta herriari berri ematea.

Eta ez da harritzekoa ere, herritarren aurrenekotik kasorik ere ez egitea eta erotzat hartzea berri ematea.

Adibidea edo precedentea: pilotasoroak*.

* Euskal Herrian azaltzen diren lehenengo pilotasoroak Oiartzunen eta Lesakan agertzen dira. Olentzerori buruz hitz egiterakoan erromatarren argumentoa erabiltzen da. Berdin egiten dugu pilotasoroekin, erromatarrek ekarri baitzuten pilota jokoa Euskal Herrira, edota erromatarrekin munduan zehar ibili ziren euskaldunak.

4. NOLA OSPATZEN DA?

Lehen azaldu dudanarengatik, pentsatzea zilegia da, pertsonaia hori erre-
alitate bat izan zela, pertsona izan zela eta zergatik hartu zuten herritarrek
ero bezala eta zergatik bai Lesaka edo bai Oiartzungo kokapena.

Nola ospatzen da Oiartzunen?

Goizetik, 14 edo 15 urte bitarteko mutilak, belarrez edo lastoz eta trapu
zaharrekin egindako panpina kaleratzen da, normalki kaja baten gainean eta
bizkarrean hartuta.

Beste batzutan, panpina izan beharrean, mutiletako bat, normalki lodie-
na, ikazkin mozorratzen da.

Neskak berriz, jaiotza edo naximentuarekin ibiltzen dira eskean.

Arratsaldean berriz, 15 urtetik gorakoak ibiltzen dira eskean, gazteak
bezala etxez etxe eta baserri baserri.

Ilunabarrean, gazteak eta helduak biltzen dira herriko plazan, eta garai
batean konkurtsoa izaten zen, gabon kanta lehiaketa.

Orain ohitura hau galtzen ari da, jaiotzarekin apenas ibiltzen dira eta nes-
kak, mutilekin naste, ibiltzen dira olentzerorekin eskean.

Gaur egun lehiaketarik ez dago, bakoitza bere auzoan, bere inguruan
elkartzen da eta herriko plazan “kabalgata” bat egiten da.

Olentzerok, transformazio edo eboluzioak izan ditu, panpinari buruz esan
nahi dut.

Txapela eta pipak adibidez nahiko berriak dira, berrehun urte dituzte gehienez.

Euskaldunak txapela eramaten hasi ginen lehenengo karlista gerra ondo-
ren. Lehenagotik kapusaiaz edo zaku bat jantzirik agertzen zen.

Eta tabakoa hemen ez zen ezagutzen. Ameriketara joandako euskaldunak
ekarri ziguten eta hori ere garai berekoa da gutxi gora behera.

Olentzero era reibindikatioa ere izan dugu eta da. Kartzelan sartu dute,
askatasuna eskatu du, amnistia ere bai, zer ez ...

Eskean ibiltzeagatik, orain goxokiak banatzen ditu, “kabalgatetan” etor-
tzen da, eta gainera opariak ekartzen ditu.

Ondoren irakurriko dizuet 1975ko Lartaun aldizkarian publikatu zena
(orain dela 30 urte).

Franco oraindik bizi zen.

5. ETA NOLA IZAN BEHAR DU?

Ikusi eta entzun dugu, ona dela Olentzerorentzat, Errege Magoekin, Santa Klaus, edo Papa Noelekin konparatzea, opariak egiterakoan noski.

Hori bizia dela, haurrei ilusioa emateko, etabar...

Bainan baita ere, Oartzuar eta Lesakar askori, hori ongi ez iruditzea. Hainbat eta hainbat urteetan tradizioa mantendu da. Panpina aldatzen joan da bai, egokitzen joan da, baina Olentzero beti eskean aritu izan da. Orain opariak ekartzen ditu eta ... ez al da galduko eskean ibiltzeari?.

Ohitura zaharra izan da lagun arteko giroa, elkartzea, ibiltzea eta kantuz aritzea.

Konpajinatu dezake Olentzerok eskean ibiltzea eta opariak ekartzea?

6. OHITURA GALTZEN

Olentzeroren inguruan, bada beste ohitura bat ia ia galdu dena. Eta da Olentzero enborra.

Garai batean, Eguberritan, suan, "su bajoan" enbor bat jartzen zen. Enbor horrek zenbat eta seme alaba izan etxe horretako familiak, hainbeste-ko adar izan behar zituen.

Adibidez, famili batek zazpi seme alaba bazituen, zazpi adarreko enborra jartzen zuten suan.

Eta gero errautsak, etxe inguruan zabaltzen ziren, etxea eta familia bedeinkatzeko, uzta ona izateko eta familian osasuna ona edukitzeko.

7. BIBLIOGRAFIA

LOPE de ISASTI. *Compendio historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa.*

R.M. de AZKUE *Euskalerrriaren yakintza. Liyeratura popular del pais vasco.*

Aita Manuel LEKUONA *Fiestas populares. Oyartzun.*

1975ko *Lartaun* aldizkaria.

Boletin de Lartaun nº 3. Diciembre 1960.